

ANA DURAN, San Fermin Ikastolako liburutegiko ardurana

"Kamishibaiak kontatzerakoan, haurren lilura aurpegiak dira nire saria"

Ana Durani ikaragarri gustatzen zaizkio liburuak eta ilustrazioak. Liburutegiko bloga sortu du: '<http://sanferminikastolakoliburutegia.blogspot.com>'.

Kamishibai moduan ipuinak kontatzen ari da ikasle eta irakurle gazteak motibatzeko.

ZIZUR TXIKIA. Galdera batzuk egingo dizkiogu gehiago jakiteko. Galdetegia osatzeko LH 3ko ikasle batzuek parte hartuko dute.

Noiztik zara ikastolako liburuzaina?

Hau 6. ikasturtea da.

Nondik datorkizu kamishibairen interesa?

Orain dela 5 urte ipuin tailer bat egin nuen eta han ezagutu nuen. Ikaragarri gustatu zitzaidan.

Non ikasi zenuen kamishibai teknika?

Liburutegi batean egin nituen ikastaro ezberdinak. Karmen Aldama eta Loli Frances nire bi irakasleak izan ziren.

Nori eta noiz kontatzen dizkiezu ipuinak?

Astearteetan eta ostegunetan LH 1-2-3 ikasleei. Osotara 12 gela eta 300 ikasle dira, txandaka hurbiltzen dira liburutegira. Han 30 minutuz egoten dira ikasleak ipuina entzuten eta gero liburuak hartzeko aukera izaten dute.

Zer da gehien gustatzen zaizuna kamishibai bat kontatzen duzunean?

Dudarik gabe ikasleen aurpegiak ikustea, normalean liluraturik eta xarmatuta egoten dira, hori da lortzen dudana saria.

Zerbait gehiago kontatu nahi diguzu?

Bai, ipuinak Yamaguchi parkean dagoen liburutegian hartzen ditut, ikasleei irakurri aurretik askotan irakurtzen ditut nik. Modu honetan testua menperatzen dut eta errazago zentratu naiteke kamishibairen teknikan: nola pasatu laminak, doinua, erritmoa... Gelan bezala, testuak behin baino gehiagotan irakurri behar dira ongi ulertu eta menperatu arte.